

Paula Elzaurdi Carrera

A maila • 3 saria



Paula Elzaurdi naiz eta Ordizian jaio nintzen 2004ko irailaren 14ean, duela 16 urte. Betidanik bizi izan naiz bertan, nire guraso eta bi ahizpekin; eta Oianguren Institutuan ikasten dut lehenengo batxilergoa. Une honetan, beka bat lortzeko prestatzen ari naiz, USAko unibertsitate batera joan, bertan ikasi eta aldi berean WNBA-n saskibaloian jolasteko. Egia esan, txikitatik nire ametsa izan dena egia bihurtzeko aurkera! Zortzi urte nintuenetik ibili naiz saskibaloian eta gaur egun Ordizia K.E. taldean jokatzen dut, emakumezkoen Junior ligan. Nire beste hobietako batzuk irakurtzea, musika entzutea eta zinemara joatea dira, eta nola ez, nire lagunekin momentu ahaztezinak igarotzea.

PANDEMIA COVID+25

2025eko abenduaren 14an, goizeko 5etan, Eritz goizeko 5:00etan esnatu zen. Bost ordu besterik lo egin ez zuen arren jauzi batez jaiki zen, idazten ari zen eleberrian lanean jarraitu nahi baitzuen. Buruan zituen ideiak orri zuri batean idatzi zituen, ideia horiek ihes egin baino lehen. Eleberriak 18 kapitulu eta 230 orrialde zituen ordurako, eta Eritzen asmoa 400 orrialde gainditzea zen.

Eritz 16 urteko mutil alferra zen eta ordura arte idatzi zituen gauza bakarrak klasean bidaltzen zizkioten idazlanak ziren. Gainera, ahalik eta laburren egiten zituen. Irakasleak bostehun hitzeko idazlan bat eskatuz gero, Eritz nola edo hala moldatzen zen hitz bat ere gehiago ez idazteko. Talde-lanetan ere, lan txikiena eskatzen zuen zatia egiten ahalegintzen zen beti. Nola ez, bere ama beti egoten zen berari begira, eta etxeko lanak egin behar zituela gogorazten zion behin eta berriro.

Azken astean zerbait gertatu zitzaion Eritzi, izan ere, erabat aldatuta zegoen. Gurasoak harrituta zeuden semearen jarrera berriarekin. Amak askotan galdetzen zion ea ondo ote zegoen, eta Eritzek baiezkoa erantzuten zion, ez baitzitzaion ezer gertatzen. Bistan zen, ordea, hura ez zela betiko Eritz.

Egun batean, supermerkatuan, Eritzen ama beste guraso batzuekin elkartu eta azaldu zien semearen jokabidea ez zitzaiola bidezkoa iruditzen, alegia, etengabe gauza berriak imajinatzeko gogoia izatea eta bereziki, bost ordu besterik lo ez egitea. Beste gurasoek esan zuten beren seme-alabei ez zitzaienta horrelakorik gertatzen, zortzi eta hamar ordu bitartean lo egiten zutela eta ez zutela gauza berrietan lan egiteko hainbesteko interesik ikusten.

Eritzen gurasoak gero eta kezkatuago zeuden. Eritz drogak hartzen egon zitekeela ere pentsatu zuten, baina ez zegoen inolako aztarnarik. Gainera, Eritz kirolari ona zen, eta bere burua zaintzea gustatzen zitzaion; beraz, ezinezkoa zen aldaketaren jatorria hortik etortzea. Azkenik, Eritzen amak semea medikuarenera eramatea erabaki zuen, eta medikuak esan zion ez zuela zertan kezkatu, noiz behinka gazteek horrela jokatzeko zutela, bat-batean hazi eta arduratsu bihurtzen zirela, eta handik aste batzuetara aurreko egoerara bueltatuko zela ziurrenik. Ordurako, Eritzek bi eleberri idatzita zituen jada, bata misteriozkoa eta bestea zientzia-fikziozkoa.

Eritzek eleberriak erakutsi zizkien bere bi lagunei, haien iritzia jakin nahi baitzuen. Hurrengo egunean bere bi lagun horiei ere, Ireneri eta Mariari alegia, gauza berriak egiteko beharra sortu zitzaion. Horrela, Irene artelanak egiten hasi zen, ederrak benetan, eta Mariak, berriz, ordura arte inoiz ez bezala 40 puntutik gora lortu zituen larunbateko saskibaloi-partiduan. Bien gurasoak egoeraz jabetu ziren eta Anari, Eritzen amari, deitu zioten, eta esan zioten euren alabek Eritzek bezalako sintomak zituztela. Benetan bitxia zen hura guztia: hiru gazteei tximista batek jo eta euren buruan zerbait lehertu zela zirudien.

Azken batean, hiru gazteen gurasoak medikuarengana joatea erabaki zuten, eta medikuari gertatzen zitzaiena azaldu zioten, hau da, ezin zutela gauzak pentsatzeari utzi. Medikuak txantxaz hartu zuen kontsulta hura, eta esan zien ezohiko gauzak egitea ezin zitekeela gaixotasuna izan, eta ohean sartu aurretik seme-alabei esne baso bat emateko, horrek hobeto lo egiten lagunduko zielako.

Aste batzuk geroago, Eritzek bere eleberria gelako kideei aurkeztu zien. Guztiak liruraturata geratu ziren, oso ona baitzen, eta horren ondorioz, Eritzek eleberria saltzea erabaki zuen.

Hurrengo egunean, ikaskide guztiak sintoma berberak zituztela jaiki ziren, guraso eta inguruko guztien kezkarako. Medikuak, lur eta zur hauek ere, arazo hori ikertzen hasi ziren, geroz eta gazte gehiagok jokabide berbera erakusten baitzuen. Iker bera ere, eskizofrenia izeneko gaixotasun bat zuen gelakidea ere, askoz hobeto sentitzen hasi zen.

Pixkanaka, fenomeno bitxi hori herri osora zabaldu zen, eta medikuak benetan kezkatzen hasi ziren. Gazteei era guztietako analisiak egiten hasi ziren. Adituek Eritz gaixotasunaren jatorritzat identifikatu zuten eta, beraz, ospital batean sartu eta isolatuta eduki zuten milaka proba egiten zizkioten bitartean.

Gaixotasun arraro horren jatorriaz eztabaidatu zuten adituek. Hasieran, medikuek pentsatu zuten infusioak egiteko erabiltzen zen eta insomnia eragin zezakeen landare baten ondorio izan zitekeela, baina, noski, honek ez zituen gainerako sintomak eragiten. Hainbat azterketa egin ondoren, aukera hori baztertu zuten. Porrot horren ondoren, jatorria txerrikietan, okeletan egon zitekeela deliberatu zuten. Laster ohartu ziren, ordea, oso oker zebiltzala.

Denbora aurrera joan ahala, gaixotasuna beste herrialde batzuetara zabaltzen hasi eta berehala milioika pertsona kutsatu ziren. Eritzen sintoma berberak zituzten, sormen-maila handia eta era guztietako ekimen positiboak gauzatzeko gogo hain zuzen.. Osasunaren Mundu Erakundeak, artean, ez zeukan birus edo bakterio bitxi batek eragindako benetako gaixotasuna izan zitekeen ebidentziarik. Baina, hala ere, Covid-19aren pandemia deklaratzekoan izandako

atzerapenaren ondorioak kontuan hartuta, berriro ere akats berbera ez egitearren, pandemia berria deklaratzearabaki zuten. Gertaera historikoa izan zen, adierazpena bera, izan ere, ondorio positiboak, onuragarriak zituen munduko lehen pandemia izan zen, Covid + 25 izendatu zuten hura. 25 hori 2025eko abenduan detektatu zelako eta + hori, eragin positiboak izan zituelako.

Bistan denez, garai hartan aurrerapen handiak egin ziren bai gizartearentzat bai zibilizazio osoarentzat. Izan ere, pertsona "gaixo" horiek, eta sasigaixotaunak berak, aurrerapen teknologiko handiak ahalbideratu zituzten, adituak denbora guztian berrikuntzak gauzatzen ari baitziren. Horrela, klima-aldaketa hobetzea lortu zuten, hegan egiten zuten autoak sortu zituzten eta munduko pobreziaarekin behin betiko amaitzeko giltza bururatu zitzairen.

Politikari batzuek, kezkatuta, gaixotasun hori kontrolatu eta desagertzeko txertoa sortu beharra zegoela zioten; eta beste batzuk, berriz, kontrakoa, ez zegoela horren beharrik. Euren ustez, zenbat eta persona gehiago kutsatu, orduan eta onura gehiago ekarriko zizkiolako munduari.

Adituek errotik moztu zuten ezabaida antzua. Jakintsu horien ustez, lehenik eta behin gaixotasun arraro horren jatorria egiaztatu behar zen, eta ondoren eragiten zuen birusa edo bakterioa identifikatu. Izan ere, ordura arte ondokioa bakarrik egiaztatu zen. Egiteko horrekin, aditu-talde bat sortu zen Oxford-eko Unibertsitatean, epidemiologoekin, immunologoekin eta psikologoekin. Buru-belarri lanean aritu ondoren, Oxford-eko ikertzaile horiek ondorioztatu zuten ez zela inoiz gaixotasunik izan eta, beraz, ezta pandemiarik ere. Pertsonen ilusioa eta gauza berriak deskubritzeko grinak sorrarazi eta eragin zituzten, betiere adituen ustez, sormen- eta pisitibotasun-bolada horiek.

Albiste horren berri izandakoan, begirada guztiek Eritz zuten jomuga, berak eragin baitzuen olatu hura. Komunikabideak bere etxera hurbildu ziren, eta prentsaurreko bat antolatu zen. Bere etxe aurrea kazetariz beteta ikusita, Eritz oso urduri jarri zen, are gehiago kameraren flashek itsutu zutenean.

Supituan, Eritz iratzargailuaren argiarekin esnatu egin zen. 2025eko abenduaren 14ko goizeko 5:00ak ziren eta gogora etorri zitzaion Filosofiako lana bukatzeko zuela, eta jaiki egin beharko zuela. Egia esateko, orri bat besterik ez zen, eta atsedenaldira idazteko astia izango zuela pentsatu zuen, baina, beste aldetik, behin baino gehiagotan gerorako utzi eta gero ahaztu egin zitzaion.

Bat-batean, bere ametsaz gogoratu zen, eta amets hartako Eritzen antzekoa izan behar zuela pentsatu. Azkenean, "ametsak, amets dira" deliberatu zuen, eta ohean buelta eman eta lotan jarraitu zuen.